



# ZERTAN DATZA?

Edukiontzia horien izena "reverse vending" da, normalean ikusten dugunaren kontrakoa baita.

Lehenik eta behin, erabiltzaileak botilak edo latak bezalako produktu bat sartu behar du makinan. Geroago, makinak ontziaren barra-kodea irakurtzen du, eta datuak, bolumena eta pisua alderatzen ditu.

Azkenik, ontzia onartu ondoren, dirua edo diskotekan erabiltzeko deskontu-txartel bat bueltatzen zaio bezeroari. Horrela, ekintza onak egin dituzten pertsonak dirua irabazten dute eta birziklatzea sustatzen da.



- Edarien aldetik, gure hornitzailea BGroup izena duen handizkako enpresa saltzailea izango da, baina ez da bakarra izango. Marka ospetzuekin harreman zuzena eduki nahi dugu gure produktuen kalitatea eta entrega ona bermatzeko, hala nola: Jaggerrekin, Barceló-rekin, Puerto de Indias-ekin... Beraiei promozioa egiteko eta horren truke guri produktuen prezioa txikitzeko. Adibidez, gau temakikoak eginez marka ospetsuei buruz: Jagger-martes, Noche en el puerto de Indias...



- Aurreko dokumentuan aipatu dugunez, bezeroen segurtasuna oso garrantzitsua da enpresa honetan eta horregatik taxi pribatuak eta bus zerbitzua eskaintzen dugu. Hori posiblea izateko, gure ikaskideek osatutako taxi enpresarekin aliatu gara, Safe Car. Hala eta guztiz ere, diru kopuru handia ez dutenezako Non The Club diskotekak duen eredia jarraituko dugu eta Bilbobus enpresarekin aliantza egiteko asmoa daukagu gure diskotekatik metro geltoki hurbilenera bezeroak garraiatzeko.



- Bestalde, ikasketa-bidaien enpresekin aliantza bat egitea pentsatu dugu. Horrek esan nahi du gazteek Bilbon ikasketa-bidaia egiten dutenean gure diskoteka eskura dutela. Horrela ikusiko dute besteek ez bezalako diskoteka bat. Adingaberik badago, eskumuturrekoak jarriko ditugu, kontsumi dezaketen ala ez jakiteko. Horrela, gure diskotekak ahotsa jarriko du hainbat lekutan, eta jendeak etortzeko eta esperientzia zoragarria izateko gogoia izango du.